

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“A-3112 errepidea Egiletan, 13,10 km-aren eta 13,47 km-aren artean, egokitu eta trazadura hobetzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren jendaurreko informazioa

Foru Gobernu Kontseiluaren 2019ko maiatzaren 21eko 334/2019 Erabakiaren bidez, “A-3112 errepidea Egiletan, 13,10 km-aren eta 13,47 km-aren artean, egokitu eta trazadura hobetzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onarpena eman zaio.

Hori dela eta, indarrean dagoen Nahitaezko desjabetzearen Legeak 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen Arautegiak 17. artikuluan ezarritakoaren babespean, aipatutako zerrenda jendaurrean jarriko da 15 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, argitaratutako zerrendan izan litezkeen akatsak zuzentzeko datu egokiak idatziz aurkeztu ahal izango ditu edonork, edo okupatu beharraren aurka ere agertu ahal izango da, funtseko nahiz formako arrazoiengatik. Azken kasu honetan, adierazi beharko du zergatik jotzen duen egokiagotzat, lortu nahi den helbururako, azaldutako zerrendan jasotzen ez diren beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea.

Interesaturik dauden erakunde, entitate, korporazio nahiz partikularrek eskuragarri dituzte lurzatiaren planoak eta eragindako titularren zerrenda Alegria-Dulantziko Udaletxeko ediktu tau-lan eta Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuan, horiek aztertu eta, bidezko izanez gero, alegazioak egin ahal izateko. Alegazioak, ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dituzte, ale bikoitzez, Foru Aldundi honetako Erregistro Orokorrean, bulego orduetan, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren Lege eta Administrazio Zerbitzuari zuzenduta (Probintzia Plaza 4, 6. solairua, 01001 Vitoria-Gasteiz.)

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 30a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

A-3112 ERREBIDEA EGLETA, 13,10 KM-AREN ETA 13,47 KM-AREN ARTEAN, EGOKITU ETA TRAZADURA HUBETZEKO PROIEKTUA
 PROYECTO DE ACONDICIONAMIENTO Y MEDIDA DE TRAZADO DE LA CARRETERA A-3112, ENTRE EL P.K. 13,10 Y EL P.K. 13,47, EN EGLETA

FNKAREN ZK. Nº FNCA	TITULARAREN IZENA NOMBRE DEL TITULAR	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA TERMINO MUNICIPAL	ARROBETAMENDUA APROVECHAMIENTO	ERAGINDAKO ONDASUNA BIEN AFECTADO	ERAGINDAKO AZALERA m ²		Esp./Expte. 2019/8
		POLIGONOA POLIGONO	DATOS CATASTRALES PARCELA				BEHIN-BETIKOA DEFINITIVA	ALDI BATERAKOA SUPERFICIE AFECTADA m ² TEMPORAL	
1/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE EGLETA	2	92	ALEGRIA-DILANTZI	LEHORREKO LABREA / TIERRA DE LABOR SECANO		438		ZORTASUNA SERVIDUMBRE
2/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE EGLETA	2	134	ALEGRIA-DILANTZI	ETZEA / ERAL		966		
3/000	EPIFANIA LOPEZ DE ABEQUICO BETIA	2	129	ALEGRIA-DILANTZI	LEHORREKO LABREA / TIERRA DE LABOR SECANO		105		
4/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE EGLETA	2	135	ALEGRIA-DILANTZI	ETZEA / ERAL		840,76		
5/000	M. ESTHER QUINTANA GARCIA DE VICUNA M. ANELES QUINTANA GARCIA DE VICUNA M. ASCENSON QUINTANA GARCIA DE VICUNA M. ARNOLDZI QUINTANA GARCIA DE VICUNA	2	124	ALEGRIA-DILANTZI	LEHORREKO LABREA / TIERRA DE LABOR SECANO		870		